

INGURUMENA HOBETZEKO PLANA - 2019

GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA

Mercedes Urgoiti Agirre, Ekoscan kudeatzailea

Donostia, 2019ko martxoaren 6a

AURKIBIDEA

- 1. HOBEKUNTZA TALDEAK AZTERTUTAKO NEURRIAK**
- 2. BIDERAGARRITASUNARI BURUZKO GOGOETA**
- 3. AUKERATUTAKO NEURRIAK**
- 4. INGURUMENA HOBETZEKO PLANA 2019**

1. HOBEKUNTZA TALDEAK AZTERTUTAKO NEURRIAK

1.1.- LED ARGIAK JARTZEA AZPkoen KOMUNETAN (BEHEKO SOLAIRUAN) ETA ZUZENDARITZAKOEN KOMUNETAN (LEHENENGO SOLAIRUAN)

Eskolako beheko solairuko B guneko komunak AZPkoek erabiltzen dituzte eta lehenengo solairuak zuzendaritzako kideek. Gaur egun dauden argiak kontsumo txikikoak dira. Kontsumo txikiko argien ordez LED argiak jartzeak izan dituen emaitza onak ikusita, ingurumena hobetzeko taldeak proposatu du beheko solairuan AZPkoek erabiltzen dituzten komunetan led argiak jartzea, bai eta zuzendaritzako kideek lehenengo solairuan erabiltzen dituztenetan ere.

Proposamena: led argiak jartzea AZPkoen komunetan (beheko solairuan) eta zuzendaritzako komunetan (lehenengo solairuan)

1.2.- LED ARGIAK ETA TENPORIZADOREAK JARTZEA 2., 3., 5. ETA 6. SOLAIRUETAKO B GUNEKO KOMUNETAN

2018an led argiak eta tenporizadoreak jarri ziren B guneko laugarren solairuko komunetan, irakasleek eta ikasleek erabiltzen dituztenetan. Orduko hartan, kontsumo txikiko argiak kendu eta led argiak jarri ziren eta bi tenporizadora 3-10 minutukoak, eta horrela, argiak piztu egiten dira etengailua sakatzerakoan eta zehaztutako denboran daude piztuta. Aldaketa egin aurretik eta ondoren, kontsumoko datuak hartu ziren, eta emaitza oso onak lortu dira.

Hobekuntza taldeak proposatu du aldaketa bera egitea B guneko komunetan ere egitea.

Proposamena: led argiak eta tenporizadoreak jartzea 2., 3., 5. eta 6. solairuetako komunetan, B gunean

1.3.- HODI FLUORESZENTEEN ORDEZ LED ARGIAK JARTZEA ELEKTRIZITATEA SAILEKO LABORATEGI BATEAN

2018AN, Ingeniaritza Elektrikoa titulazioko irakasgai batean proposamena egin zen Elektrizitatea saileko irakasleek titulazioko ikasleekin batera etengailu gehigarri bat jartzeko saileko laborategietan, horren bidez lehenengo ilarako argiak piztu eta amatatzeko, orduan zegoen sistemaren bidez zig-zagean pizten baitziren argiak eta ez baitzen posible lehenengo ilara bakarrik erabiltzea. Era horretara pantaila ezin zen ondo ikusi proiektorea erabiltzen zenean. Horrez gain, hobi fluoreszenteak kendu eta led argiak jartzea proposatu zen. Lehenengo proposamena gauzatu zen, baina bigarrena ez. Beraz, ingurumena hobetzeko taldeak proposatu du Elektrizitatea saileko laborategi batean fluoreszenteak kentzea et led argiak jartzea.

Proposamena: hodi fluoreszenteen ordez led argiak jartzea Elektrizitatea saileko laborategi batean

1.4.- BIZIKLETA ZERBITZUA MARTXAN JARTZEA ESKOLAKO LANGILEEK LANEKO JOAN-ETORRIETARAKO ERABILTZEKO

2018an eskolako langileei galdetu zitzaizen jakiteko interesik daukaten bizikleta arrunta erabiltzeko laneko orduetan eta laneko joan-etorri laburretarako. Ez ziren erantzun asko hartu, baina proposamena positibotzat hartu zen. Beraz, eskolak Gipuzkoako Campuseko errektoreordeari bidalitako premien txostenean, bizikleta arrunt bat erostea proposatu da. Ondorioz, proposamen hau gauzatzea errektoreordetzak ematen duen erantzunaren menpe dago.

Ekimen honen helburua da eskolako langileek garraiobide ez-kutsakorrek erabiltzea eta ohitura osasungarriak izatea.

Proposamena: bizikleta zerbitzua martxan jartzea eskolako langileek laneko joan-etorrietarako erabiltzeko

2. BIDERAGARRITASUNARI BURUZKO GOGOETA

2.1.- LED ARGIAK JARTZEA AZPkoen KOMUNETAN (BEHEKO SOLAIRUAN) ETA ZUZENDATZIKOEN KOMUNETAN (LEHENENGO SOLAIRUAN)

Helburua: AZPkoen eta zuzendaritzako kideen komunetan led argiak jartzea

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak, 2018ko abenduaren amaieran, laguntza eman zion eskolari ekimen hau gauzatzeko beharrezko diren materialak erosteko. Kostua 247,75 €-koa izan da, argiak mantentze zerbitzuko eta atezaintzako langileek jarri baitituzte.

Horrela, komunetan 312 W aurreztu ditugu.

Solairua/gunea	Komunak AZP/zuzendaritza	Kontsumo txikiko argiak			Led argiak		
		Argi kop.	W	W guztira	Argi kop.	W	W guztira
0 eta 1.a B gunea	Mutila	7	13x2=26	182	6	8	48
	Neskak	7	13x2=26	182	6	8	48
	Korridorea	2	13x2=26	52	1	8	8
Kontsumo txikiko argiak		16		416 W	13		104 W

Aurreko ekintzen kasuan legez, ekintza hau ere onuragarria izan da ingurugirorako argi kontsumoa murriztu egin baita, eta, ondorioz, gainera, dirutan ere aurreztu dugu.

2.2.- LED ARGIAK ETA TENPORIZADOREAK JARTZEA 2., 3., 5. ETA 6. SOLAIRUETAKO B GUNEKO KOMUNETAN

Helburua: led argiak eta tenporizadoreak jartzea 2., 3., 5. eta 6. solairuetako b guneako komunetan

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak, 2018ko abenduaren amaieran, laguntza eman zion eskolari ekimen hau gauzatzeko beharrezko diren materialak erosteko.

Kostua 2.675,27 €-koa izan da (BEZ barne), argiak mantentze zerbitzuko eta atezaintzako langileek jarri baitituzte.

2018ko amaieran hasi eta 2019ko hasieran, B guneko laugarren solairuko komunetan gastatzen zen argia neurtu zen, led argiak eta tenporizadoreak jarri aurretik eta ondorengo datuak izateko:

KOMUNAK – 4. SOLAIRUA – B GUNEA			
Argi mota	Aldia	Konsumoa/solairua	Konsumoa/egun/solairua
Konsumo txikikoa (aldatu aurretik)	2018-11-23 – 2018-12-21 (29 egun)	31,32KWh	1,08 KWh
Led + tenporizadoreak (aldaketaren ondoren)	2019-01-22 – 2019-02-18 (28 egun)	5,21 KWh	0,186 KWh

Datu horiek kontuan hartuta, aldaketa honen ondorioz urtean murrizten den kontsumoa taula honetan dago jastoa:

Argi mota	Urteko kontsumoa solairuko	Urteko kontsumoa 4 solairuetan
Konsumo txikikoak	394,20 KWh	1.971,00 Kwh
Led + tenporizadoreak	67,92 KWh	339,60 Kwh
Murrizketa	326,28 KWh	1.631,40 Kwh

Beraz, urtean 1.631,40 KWh gutxiago gastatu dira

Aurreko ekintzen kasuan legez, ekintza hau ere onuragarria izan da ingurugirorako argi kontsumoa murriztu egin baita, eta, ondorioz, gainera, dirutan ere aurreztu dugu.

2.3.- LED ARGIAK JARTZEA ELEKTRIZITATEA SAILEKO LABORATEGI BATEAN

Helburua: led argiak jartzea elektrizitatea saileko laborategi batean

Eskolako langileek eta ikasleek egingo dute lan hau, eta, beraz, kostu bakarra fluoreszenteen ordeztu jarri beharreko led argiak erostea da. 3.100-eko led hodiak jarriko dira. Kostua 421,08 € izango da (3.100 lm => 20 argi x 21,054 €) Ekimen hau Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren erantzunaren menpe dago, izan ere eskolaren 2019ko premien txostenean jasota genuen material hau erosteko eskaria.

Aldaketa honen bidez 760 W aurreztuko ditugu.

Elektrizitatea Saileko laborategia		
Kontsumo txikia	20 argi x 58 W	1.160 W
Led (3.100 lm)	20 argi x 20 W	400 W

Aurreko ekintzen kasuan legez, ekintza hau ere onuragarria izan da ingurugirorako argi kontsumoa murriztu egin baita, eta, ondorioz, gainera, dirutan ere aurreztu dugu.

2.4.- BIZIKLETA ZERBITZUA MARTXAN JARTZEA ESKOLAKO LANGILEEK LANEKO JOAN-ETORRIETARAKO ERABILTZEKO

Helburua: bizikleta zerbitzua martxan jartzea eskolako langileek laneko joan-etorrietarako erabiltzeko

Bizikletak 299,99 € balio du. Errektoreordetzak bizikleta erosteko laguntza emanez gero, eskolak kilometro kontagailua erosiko du urtean egiten den kilometro kopurua zenbatzeko. Gestio hau administrazio eta zerbitzuetakoek egingo dute, eta erabilera erregistroa irekiko da.

Ekintza honek badu onurarik ingurumenean, garraio hau erabilia ez baita CO2-rik isurtzen atmosferara. Horrez gain, onuragarria da osasunerako.

3. AUKERATUTAKO NEURRIAK

Hauek dira 2019rako hautatu diren hobekuntzako helburuak:

1. led argiak jartzea AZPkoen komunitetan (beheko solairuan) eta zuzendatzikoen komunitetan (lehenengo solairuan).
2. led argiak eta tenporizadoreak jartzea 2., 3., 5. eta 6. solairuetako B guneko komunitetan.
3. led argiak jartzea elektrizitatea saileko laborategi batean.
4. Bizikleta zerbitzua martxan jartzea eskolako langileek laneko joan-etorrietarako erabiltzeko.

4. INGURUMENA HOBETZEKO PLANA 2019

Hauek dira hobekuntza planeko ekintzak eta epeak:

GIEko INGURUMENA HOBETZEKO PLANA: 2019 URTEA

Hobekuntzarako helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Ekimena gauatzeko epea	Jarraipena egiteko data	Jarraipena egiteko adierazlea
Led argiak jartzea AZPkoen komunitan (beheko solairuan) eta zuzendatzikoen komunitan (lehenengo solairuan).	- Eskolako mantentze zerbitzuko eta atezaintzako langileek egingo dute	Administrazio burua	urtarril/otsaila	otsaila	- 2018ko premien memoria - Faktura
led argiak eta tenporizadoreak jartzea 2., 3., 5. eta 6. solairuetako B guneko komunitan.	- Eskolako mantentze zerbitzuko eta atezaintzako langileek egingo dute	Administrazio burua	urtarril/otsaila	martxoa	- 2018ko premien memoria - Faktura - Kontsumoko datuak: laugarren solairua, B gunea
Led argiak jartzea elektrizitatea saileko laborategi batean	- Aldaketa egin aurretik kontsumoa zehaztea	Elektrizitatea saileko IRI/ikasleak	otsaila-martxoa	martxoa	- Kontsumoko datuak
	- Led argien eta materialen aurrekontua eskatu	Elektrizitatea Saileko IRIak	urtarrila	urtarrila	- Aurrekontua
	- Campuseko errektoreordetzari diru laguntza eskatzea eskolako premien memoriaren bidez	Administrazio burua	otsaila	otsaila	- 2019ko premien memoria - Kontsumoaren emaitzen txostena
	- Fluoreszenteak kendu eta led argiak jarri	Elektrizitatea saileko IRI/ikasleak	apirila-maiatza	maiatza	- Faktura

	- Aldaketa egin ondoren kontsumoa zehaztu	Elektrizitatea saileko IRI/ikasleak	maiatza-ekaina	ekaina	
Bizikleta zerbitzua martxan jartzea eskolako langileek laneko joan-etorrietarako erabiltzeko.	- Campuseko errektoreordetzari diru laguntza eskatzea eskolako 2019ko premien memoriaren bidez	Administrazio burua	otsaila	otsaila	- 2019ko premien memoria
	- Errektoreordetzak bizikleta erosteko laguntza emanaz gero, bizikleta zerbitzua martxan jartzea eta erabilera erregistroa irekitzea	Administrazio burua + Atezaintza	Errektoreordetzak laguntza ematen baldin badu	Errektoreordetzak laguntza ematen baldin badu	- Zerbitzuaren erabilera erregistroa

Ingurumenaren hobekuntza plan hau zuzendaritzak 2019ko martxoaren 6an egindako bileran **onartu** da, eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako zuzendaritzak konpromisoa hartzen du plan betetzeko beharrezko diren baliabide materialak eta giza baliabideak jartzen, betiere, barne prozedurari jarraituz.

Iz.: J. Xabier Ostolaza Zamora

 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako zuzendaria